


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

KULTURARTEKOTASUNA

Eskola baten behaketa

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Aretxabaleta Larrabeiti, Irati.

ZUZENDARIA: Fernandez Lasarte, Oihane.



2017/2018

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| Sarrera eta justifikazioa | 4 |
| 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kulturartekotasuna eta hezkuntza komunitatea..... | 6 |
| 1.1. Inklusioa eta kulturartekotasuna..... | 6 |
| 1.2. Esparru juridikoa..... | 9 |
| 1.3. Hezkuntza komunitatea | 17 |
| 2. Helburuak eta hipotesiak..... | 22 |
| 3. Esparru praktikoa: Eskola bateko kulturartekotasunaren errealitatea behatzen..... | 23 |
| 3.1. Metodologia..... | 23 |
| 3.2. Emaidzak..... | 25 |
| 3.3. Ondorioak | 36 |
| 3.4. Lanaren mugak eta etorkizunari begira hobetzeko proposamenak..... | 39 |
| 4. Erreferentziak..... | 41 |
| ERANSKINAK..... | 44 |
| 1. Eranskina. Familientzako galdetegiak..... | 44 |
| 2. Eranskina. Ikasleentzako galdetegia..... | 48 |
| 3. Eranskina. Irakasleentzako galdetegia..... | 49 |

KULTURARTEKOTASUNA

Eskola baten behaketa

Irati Aretxabaleta Larrabeiti

EHU/UPV

Gasteizeko eskola publiko batean egindako ikerketa lan honen bidez, eskola honetan kulturartekotasuna lantzen den aztertu nahi da. Azken urteetan globalizazioaren fenomenoak ikasle etorkinen kopurua igo eta eskoletan kultura ezberdinetako haurrak batera egotea ekarri du. Honen aurrean eskolak inklusioak dakartzan erronka berriei aurre egin behar izan die. Lan honen helburuak, eskolako aniztasun kulturalaren errealitatea ezagutzea; hezkuntza komunitateak, inklusioaz eta kulturartekotasunaz duen ikuspegiaz jabetzea; eta eskolak kulturarteko hezkuntzaren inguruan egindako lana deskribatzea dira. Horretarako atal teorikoan aditu ezberdinen planteamenduak azaldu dira. Ondoren, atal praktikoa egiteko erabili diren tresnak galdetegiak izan dira eta hezkuntza komunitateko kide ezberdinek hartu dute parte, guztira 26 familia, 36 ikasle eta 17 irakasle izan dira. Azkenik, emaitzak ikusita ondorioztatu da, eskolan aniztasun kulturala dagoela, hezkuntza komunitateak ez dituela inklusioa eta kulturartekotasuna positiboki baloratzen, eta eskolan ez dela kulturartekotasuna behar beste lantzen. Honen aurrean, gaian sakontzeko kulturartekotasunean zentratutako ikerketa gehiago egiteko beharra proposatzen da.

Kulturartekotasuna, hezkuntza komunitatea, lehen hezkuntza, eskola publikoa

A través del trabajo de investigación realizado en una escuela pública de Vitoria-Gasteiz, se analiza la interculturalidad del centro educativo. En los últimos años el fenómeno de la globalización ha aumentado el número de alumnado extranjero. Ante esta situación, la escuela ha tenido que enfrentarse a los nuevos desafíos de la educación inclusiva. Los objetivos de este trabajo son: conocer la diversidad cultural de la escuela; valorar la perspectiva que tiene la comunidad educativa sobre la inclusión y la interculturalidad; y describir el trabajo realizado en el centro escolar. Para todo ello se han revisado reseñas y estudios varios. Asimismo, se han usado fuentes primarias de información tales como las encuestas realizadas en el centro, en las que han participado en total 26 familias, 36 alumnas y alumnos, y 17 personas del profesorado. Según los resultados extraídos de las encuestas realizadas, se concluye que en la escuela existe diversidad cultural, la comunidad escolar no valora positivamente la inclusión y la interculturalidad, y la escuela no trabaja lo suficiente la interculturalidad. Como consecuencia, se propone la necesidad de llevar a cabo mayor número de investigaciones para profundizar sobre la interculturalidad.

Interculturalidad, comunidad escolar, educación primaria, escuela pública

Sarrera eta justifikazioa

“Kulturarteko hezkuntza ilusioz beteriko apustua da, praktikan aurrera eramateko zaila, baina hezkuntza gure bizitzako erronkarik zailenetarikoa eta beharrezkoenetarikoa da eta horretaz kontziente izan behar gara” (Leiva eta Escarbajal, 2001).

Lehen hezkuntzako graduako hirugarren mailan iritsi zen GRAL-a zein gairi buruz egin behar zen pentsatzeko unea. Hasiera batean, ez zegoen oso argi lana nondik bideratu baina argi zegoen lan hau aniztasunaren inguruan egin nahi zela. Beraz, honakoa garatu eta proposamen berri bat aurrera eramatea erabaki zen.

Laugarren ikasturtea iritsi zen eta honekin batera GRAL-arekin hasteko momentua etorri zen. Kulturarteko hezkuntza gaia lantzea erabakita zegoen baina oraindik ez zegoen argi nola garatuko zen gai hori eta beraz hausnarketa ezberdinak egin ziren. Kulturartekotasunaren gaia lantzea erabaki zen batez ere bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, orain arte egindako praktikaldietan behatu ahal izan delako eskoletan gero eta aniztasun handiagoa dagoela kulturei eta jatorriei dagokionez eta hori horrela izanda ere, eskolaren eta hezkuntza komunitatearen funtzionamendua azken urteetan ez da asko aldatu errealitate berri horretara moldatzerako orduan. Bestalde, gaur egungo globalizazioaren ondorioz gero eta nabariagoa da kultura nagusiek kultura minoritarioak desagerrarazi edota zapaltzen dituztela, hori gerta ez dadin uste da garrantzitsua dela kulturarteko hezkuntza sustatzea haurrek txikitatik kulturekiko jarrera positiboa izan dezaten.

Gaian murgildu baino lehen, beharrezkoa da multikulturalitatea eta kulturartekotasuna hitzak alderatzea, antzekotasunak dituzten arren desberdinak direlako. Multikulturalitatea gertatzen da momentu eta espazio berdinean kultura ezberdinak elkartzen direnean eta kulturartekotasuna, aldiz, kultura guztiei garrantzi bera eman eta kultur aniztasuna era positiboan ulertzen denean gertatzen da. Sarritan eskoletan kultura ezberdinetako ikasle eta familiak elkartzen direnean gatazkak edo arazoak sortzen dira, horiek gertatzea saihestezina denez gero, momentu horiek hezkuntzaren parte bihurtu eta gizartearen prozesuan beharrezkoak diren jarrerak eta jokabideak eskuratzeko aukera bezala erabili daitezke. Horrela, kultura aniztasuna zerbait negatiboa izan beharrean, aberasgarria bihurtuko da hezkuntza komunitate osoarentzat.

Lan honetan, lehenengo atal teorikoan, autore, lege eta programa ezberdinek kulturarteko hezkuntzaren inguruan diotena azalduko da, hiru aspektutan sakonduz: inklusioa eta interkulturalitatea, esparru juridikoa eta hezkuntza komunitatea. Ondoren, behin

berrikusketa teorikoa eginda, lan hau aurrera eramateko planteatu diren helburu eta hipotesiak azaltzen dira. Bigarren atal praktikoan, esparru praktikoa aurrera eramateko erabili den metodologia, lortutako emaitzak, ateratako ondorioak eta lan honek izandako mugak eta etorkizunari begira lantzeko aukerak azaltzen dira. Azkenik, erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak daude.

Baina, zer egin da hezkuntzan kulturartekotasunaren inguruan? Praktikan aurrera eramaten da? Ba al dago kulturartekotasuna lantzeko modurik? Galdera hauei guztiei erantzuteko eta etorkizunean kulturartekotasunari eman beharreko garrantzia emateko erabiliko da lan hau.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: kulturartekotasuna eta hezkuntza komunitatea

1.1. Inklusioa eta kulturartekotasuna

Hezkuntzak ibilbide luzea egin du pertsona ezberdinen hezkuntzarako eskubide urraketetatik, gaur egungo hala moduzko integrazioa arte; honako hau noski maila eta modu ezberdinetan eman izan da. Aipatzekoa da ibilbide hau ez dela bakarra eta lineala izan (Parrilla, 2002).

Kulturarteko hezkuntza gaur egun oraindik erronka bat da gure gizartearentzat. Definitu aurretik, hezkuntza eta kultura kontzeptuak azalduko dira (Oion, 2003).

Hezkuntza, errealitate indibiduala eta kolektiboa eraldatzeko, ulertu eta jarduteko gaitasuna izatea da batzuen ustez. Hezkuntzak errealitatea transformatzen laguntzen du baita bizi garen mundua ere eta honako hau hezkuntza popularra izenez ere ezagutzen da. Hezkuntza mota honek errealitate hurbilean influentziak eragiteko gai diren ezagutzak eraikitzen ditu, kolektiboen beharriaren asetzea bilatzen du eta guztien erabakitzearen eta parte hartzearen alde egiten du, beharriaren, interesak edota helburuak betetzeko (Oion, 2003).

Kulturaren barruan hainbat aspektu sartzen dira, horien artean balioak, sinesmenak, arauak, erlazio sozial motak, ekonomia, artea, etab. Antropologia tradizionalak, kultura, lurralde kokalekuari parekatu zion, horrela konparaketa sistemak sortu eta kultura ezberdinen arteko talkak sortzeko. Honek, kultura ezberdinen arteko nagusitasunak eta desberdintasunak sortzea eragin zuen. Honen ondorioz, kulturak haien barnean homogeen bezala ulertzea eta besteekin alderatzerakoan heterogeen bezala ulertzea eragin du, dibertsitate kulturalari ateak itxiz edota azpikulturak sortzea mugatuz (Oion, 2003).

Globalizazioaren fenomenoak ageri utzi ditu gizartearen konplexutasunak. Globalizazioak kulturen arteko interakzioak eragin ditu, kulturartekotasuna sustatuz. Baina kulturartekotasun hau ez da parekidea, horizontala edota elkarrekikoa, izan ere, kultura dominanteak (ez da beti lurralde bateko kultura nagusia izaten), beste kulturak suntsitu edota bereganatu egiten ditu (Oion, 2003).

Kulturartekotasunak ikuspegiaren arteko interakzio eta elkarrekikotasuna eragiten du. Horrela, pertsonen eta kultura ezberdinen elkarbizitza eta horizontaltasuna martxan jarri. Kulturarteko ikuspegiak bi helburu nagusi dauzka: alde batetik, kultura ezberdinen arteko dialogoaren bidez, haien artean interakzio aberasgarriak sortzea. Bestalde, gizarte konplexu eta

anitzean txertatzeko beharrezkoak diren errekurtsoak eskaintzea talde kultural guztiek (nagusiak eta minoritarioak) eskubide eta aukera berberak izan ditzaten (Oion, 2003).

Inklusioa aipatzea ezinbestekoa da kulturartekotasuna hitza ulertzeko, inklusioaren kontzientzia sozialean UNESCOk eragin handia izan zuen, batez ere giza eskubide eta hezkuntzaren eskubideei dagokionez. Kontzientziazio horren eraginez, 1990ean UNESCOk Thailandian konferentzia bat antolatu zuen eta bertan Gizarte zibilizatu eta garatuen artean guztiontzako hezkuntza eskubidea bermatzea erabaki zen, horrela inklusioaren kontzeptua irekiz. Konferentzia honek sortutako kontzientziazio mugimenduaren eraginez, lau urte beranduago eta berriro ere UNESCOri esker, Salamancan 88 herrialde eta nazioarteko 25 antolakundek hezkuntzaren inklusiora bideratutako hezkuntza sistemak edo jarduerak garatuko zituztela erabaki zuten.

Salamancako adierazpenean, inklusioa haur eta pertsona guztien eskubide bezala ulertzen da eta ez soilik behar bereziak dituzten pertsonentzako. Honela, kontzeptu hau profesional askoren egunerokotasunean murgiltzen hasi zen (Parrilla, 2002).

Inklusioa gertakari sozial bat da eta esklusioa da gaur egungo gizartearen arazo handienetako bat. Baina, esklusioa ez da XX. mendeko kontzeptu bat, betidanik egon izan da gaur egun handiagoa den arren. Globalizazioak eta aldaketa handiek eragin dute pertsona, kultura eta herrialde ezberdinak baztertzea eta, aldi berean, horien esklusioaren kontra borrokatu behar izatea. Honekin lotuta, hezkuntza sistemetan aniztasuna kutsu negatiboarekin ulertu izan da eta esfortzu gehienak horren kontra egiteko bideratu izan dira. Aniztasunaren aurrean, hezkuntzak, antolamendu eta trataera bereziak egin ditu. Hala nola, eskoletako azterketa orokorrak, programa eta gela bereziak sortzea, etab. Inklusioaren kontzeptua oso berandu iritsi da hezkuntzara eta modu ezberdin eta desorekatuan aplikatu da, askotan atzerapausoak emanez aurrera egin behar zenean. Orain arte eskolak aniztasunari erantzuteko hartutako erabakiak lau faseetan sailkatu daitezke (Parrilla 2002):

- *Esklusioa* (hezkuntzarako eskubidea ukatzea): lehenengo etapa honetan, eskolara joateko eskubidea ukatzen zitzairen interes burokratiko, eklesiastiko edo militarerako mesedeetan ez zeuden pertsona talde guztiei.
- *Segregazioa* (hezkuntzarako eskubidea taldeka ezberdinduta): bigarren etapa honetan, aurreko kolektiboak eskolara joateko eskubidea eskuratzen dute baina sistema bereizi batean. Ikasleen jatorri eta gizarte-mailaren arabera norabide ezberdinak hartzen zituzten; eskola bereziak zeuden etnia eta kultura gutxituen partaide ziren haurrek;

emakumeak hezkuntzarako eskubidea lortu zuten baina eskolak sexuen arabera bereizi zirelarik.

- *Erreforma integratzaileak*: hezkuntza eskubidean eragin handia izan zuten erreforma hauek. Baztertze egoeran egondako kolektibo ezberdinen erreklamazioen ondorioz sortutako erreformak dira. Honekin hezkuntza sistema eta eskola berdinetan, jatorri sozioekonomiko, kultural, sexu eta behar ezberdinetako haurrak elkarrekin egotea bultzatu nahi da. Honako hau 50 eta 60ko hamarkadetan gertatu zen. Baina, aldaketa hauek askoren ustez, fisikoak baino ez ziren izan, eskolan moldaketa gutxi eman ziren edo bat ere ez zen eman.
- *Erreforma inklusiboak*: eskoletan egindako aldaketa guztiak (irakasleak, curriculum, antolamendua...) kontuan izanda ere, zailtasun handiak daude aniztasuna modu parekide batean landu ahal izateko. Gaur egun bazterketak presente daude. Inklusioak esan nahi du guztiena den komunitatean parte hartzea, honetan egoteko eta modu aktiboan parte hartzeko eskubideak bermatzen direlarik.

Eskolaren erronka ez da eskola “moldatzea” pertsona talde ezberdinak bertan sartzeko, horrez gain berrantolaketa global bat egin behar da haur bakoitzaren beharrezko erantzun egokia eman ahal izateko (Parrilla, 2002).

UNESCOren “la educación encierra un tesoro” txostenean, XXI. mendeko hezkuntzarako beharrezkoak diren lau pilare garrantzitsuenak deskribatzen ditu: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Izaten ikasteak eta elkarrekin bizitzen ikasteak, lotura zuzena dute garapen pertsonalarekin, besteen ezagutzarekin eta enpatian oinarritutako erlazioekin. Honako hau beste era batera esanda, kulturarteko hezkuntzari buruz hitz egiten ari garela esango genuke. Kulturartekotasuna, kulturen ezberdintasun eta aniztasunetan zentratzen da eta ez kulturalki ezberdinak diren horientzako hezkuntzan. Gaur egun bizi garen mundu globalizatu honetan, elkarren artean bizitzen ikasi behar dugu modu sortzaile eta aberasgarri batean (Sáez, 2001).

Kulturarteko hezkuntza ondorengoa da: errespetuan eta aniztasun kulturalaren balioespenean oinarritzen den hezkuntza ikuspuntua; gizarteko kide guztioi eta bakoitzari zuzendua dagoena, interbentzio eredu bat proposatzen duena formala eta informala, integratua eta guztien aukera zein emaitzen berdintasunean oinarritzen dena baita arrazismoa gainditzen duena ere (Sáez, 2001).

Kulturarteko hezkuntza ondorengo printzipioetan oinarritzen da: elkarrekintzan dauden kultura guztienganako errespetua sustatzea eta kultura gutxituak beste kulturara egokitzeko egindako politikak kondenatzea; kulturarteko hezkuntza ikasle guztientzako da esanguratsua eta ez soilik kultura gutxituen partaide direnentzat; etnia edo kulturen inguruan sortutako arazoak ez dira aldebakarrera zuzendutako egoera bezala konpondu behar, gizarte global eta orokorrean zuzendu beharrekoak dira; kontaktuan dauden kulturak onartzean datza eta ezagutza, pertsona guztien ezaugarri komuna dela bultzatzen du (Aguado, 1999).

Kulturarteko hezkuntzaren helburuak honakoak dira: aniztasun kulturala pertsona guztientzat onuragarria dela bultzatzen duten ideiak zabaltzea; talde kultural bakoitzari beste taldeen ezaugarriekin laguntzea; ikasleengan beste herrialdeetako ohiturekiko interesa piztea; eta ikasleei kulturarteko gizarte batean bizitzeko beharrezkoak izango zaizkion jarrera eta jakintza intelektual, sozial eta emozionalak ahalbidetzea. Hezkuntzak aniztasunarekin egiten du topo errealitatean eta honek alde desberdinen arteko elkarrekintza egotea eskatzen du eta guztion arteko aberasgarritasuna sortzea. Laburbilduz, kulturarteko hezkuntza eraikitzeak, berezko kulturak beste kulturekiko eskubide, betebehar eta aukera berdintasunak baieztatzea behar ditu gizarte berean bizi diren pertsonen arteko harremanei dagokionean (Sáez, 2001).

1.2. Esparru juridikoa

Hezkuntza eskubide bat da eta giza eskubideen borrokan elementu zentrala dela esan daiteke. Eskubide unibertsal hau Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 26. Artikuluaren lehenengo puntuan aurki dezakegu (Oion, 2003):

1. Pertsona guztiek daukate hezkuntzarako eskubidea. Hezkuntza doakoa izan behar da gutxienez funtsezko eta oinarritzko hezkuntzari dagokionez (...).

Artikulu horretan bigarren puntuan aipatzen da Giza eskubideen indartze eta errespetua bermatu beharko duela hezkuntzak.

2. (...) giza eskubideekiko eta askatasunekiko errespetua garatuko ditu. Nazio ezberdinen eta etnia ezberdinen zein erlijioen arteko laguntasuna, ulermena eta tolerantzia bermatuko ditu eta nazio batuen jarduerak garatzea ahalbidetuko du bakea mantentzeko.

Hirugarren puntuan gurasoek seme-alabentzako nahi duten hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea adierazten da. Baina hezkuntzan dauden aukera faltengatik kultura minoritarioetakoek zailtasunak izaten dituzte, izan ere, haien kultura zein hizkuntza ez dira kontuan hartzen eskoletako curriculumetan (Oion, 2003):

3. Gurasoek eskubidea izango dute haien seme alabentzat nahi duten hezkuntza mota aukeratzeko.

Kulturarteko hezkuntza batekin zerikusi zuzenagoa duten beste artikuluko batzuk ere aurki ditzakegu. Bigarren artikuluan honakoa aipatzen da (Oion, 2003):

1. Pertsona orok ditu hemen aipatutako eskubide eta askatasun guztiak, arraza, kolore, hizkuntza, erlijio, iritzi politikoa, jatorri, egoera ekonomikoa (...) edozein delarik ere.

Europako emigrazioen ondorioz, gizartean dibertsitate handiagoa sortzen ari da eta multikulturalitatea gero eta nabariagoa den heinean, Europako hezkuntza kontseiluak honako gomendioak adierazten ditu beste batzuen artean. Errealitate multikulturalak eta gizarteko aniztasunak, kulturarteko hezkuntzarekin loturiko ekimenak sortu beharko lituzke, horrela batasuna bermatzeko baita talde minoritarioen identitatea zaintzeko eta tolerantzia, errespetua zein integrazioa garatzeko ere. Kulturarteko Hezkuntza ez da soilik jakintzan zentratu behar, aniztasun kultural eta soziala onartu eta errespetatzeko jarrera eta portaerak ere landu behar ditu (Oion, 2003).

Eskola Publikoaren Legeak, honakoa adierazten du 3. artikulua lehengo puntuan (2012):

1. Euskal Eskola Publikoa, plurala, elebiduna, demokratikoa (...) ingurunearekin sozialki eta kulturalki sustraitzen dena, parte hartzailea, desberdintasunak orekatzen dituen eta aniztasunaren integratzailea da.

3. artikulua bigarren puntuan eta eskola inklusiboarekin lotura gehiago izanda, honakoa adierazten du (2012):


2. (...) ikasleen pertsonalitatea garatzeko askatasuna eta haien formakuntza integrala lantzea, konbidentzia demokratikoa ahalbidetuko duen balioetan oinarrituz, gaitasun eta jarrera kritikoak sustatu, parekidetasuna, justizia, parte hartzea, pluralitateari errespetua, kontzientzia askatasuna, solidaritatea, elkarrenganako tolerantzia eta errespetua baita giza eskubideen defentsa ere (...).

Espainiako hezkuntzan dagoen esparru juridikoa eta kulturartekotasuna kontuan hartzen baditugu, aspektu batzuk kontuan izan behar dira. Alde batetik, kulturartekotasuna lantzeko beharrezkotzat ikusten da bertan ezarrita dauden konpetentziez gain beste konpetentzia bat ezartzea “kulturartekotasuna” izenekoa. Bestalde, faltan botatzen da ikasleen tutore legal edo familien parte hartzea sustatuko duen legedia. Horrekin batera, aipatzekoa da beharrezkoa dela


guraso eta hezkuntza komunitatearen parte hartze osoa benetan kulturartekotasuna landu nahi badugu eta hutsune legal baten aurrean aurkitzen gara. Badaude familien parte hartzearen garrantzia aipatzen duten erreferentzia batzuk, baina beharrezkoa da horien ildo zehaztea. Azkenik, legedia kontuan hartuz gero, etorkinak eta haien familiak dira “hemengo” elkarbizitza arauetara egokitu behar direnak eta bertako hezkuntza kompetentziak garatzea lortu behar dutenak; baina edukien gehikuntza bat emango balitz aberasgarriagoa izango litzateke gainontzeko herrialdeekin erlazioak sortzea (Bernabé, 2013).

Tradizionalki eskolak kultura minoritarioetako kolektibo ezberdinak jaso izan ditu baina hauei ez zaie behar izan duten atentziorik eman, izan ere, modelo nagusira integratu behar izan dira. Pixkanaka, eskola ikasleen beharrezanetara egokitzen joan da, hauen parte hartzea garatuz eta pertsonen behar eta prozesuei garrantzia emanez. Horrela hezkidetzeta, heziketa berezia edota kulturarteko hezkuntza bezalako ikuspuntuak curriculumean txertatzen joan izan dira. (Oion, 2003).

Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan azken urteetan izandako atzerritarren etorreraren hazkundera ikus daiteke 1. eta 2. Grafikoetan.



1. Grafikoa. EAEko eta euskal hezkuntza sistemako herritar etorkinen gaineko datu estatistikoak (Eusko Jaurlaritza, 2016).



2. Grafikoa. LHko 4.maila. Geruza bakoitzean eskolatutako ikasle natibo eta etorkinen ehunekoa guztizkoarekin alderatuta (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Eusko Jaurlaritzak azken urteetan programa ezberdinak argitaratu ditu arlo honen inguruan eta horien artean honakoak daude:

- *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016* (Eusko Jaurlaritza, 2012a).
- *Ikasle Etorkinentzako hezkuntza-arretarako plana, eskola-eredua inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015* (Eusko Jaurlaritza, 2012b).
- *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana* (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Lehenengoan honakoa azpimarratzen da, hezkuntza inklusiboaren kontzeptuak faktore asko izan behar ditu kontuan ezin da arrazoi bakarrean zentratu. Guztiontzako eskola ezartzea da xede nagusia eta egonkorragoa izango da hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea ahalbidetzen den heinean. Eragina hobea izango da hezkuntza komunitate osoaren erreflexio eta garapenen ondorioa baldin bada (Eusko Jaurlaritza, 2012b).

Inklusioa kalitatearen adierazlea da, izan ere ikasle guztien hezkuntza eskubidea bermatzen du.

Eskola inklusiboa sortzeko beharrezkoa da hiru eremu hauetan jardutea: kultura inklusiboak sortu, politika inklusiboak sustatu eta jarduera inklusiboak gauzatu (Eusko Jaurlaritza, 2012b).

Alde batetik, *kultura inklusiboak* sortzeko, hezkuntza proiektuak ondorengo erabakiak bideratuko ditu (Eusko Jaurlaritza, 2012b):

- Berdintasuna, parekidetasuna eta justizia sustatzea.
- Aniztasunari erantzuteko eskolako elementu basikoak berrantolatzea.
- Ikasle guztien ikaskuntza bermatzea.
- Komunitate osoaren parte hartzea bermatzea.
- Irakasleek ikasle bakoitzaren gaitasunetan sinestea lortzea.

Bestalde, *politika inklusiboak* sortzeko beharrezkoa izango da irakasleen eta eskolaren eguneroko bizitzan parte hartzen duten guztien behaketa egitea. Politika inklusiboak sortzea honakoa esan nahi du (Eusko Jaurlaritza, 2012b):

- Hezkuntza komunitateko kide guztiei harrera egitea eta guztien (ikasle, irakasle, guraso...) parte hartzea sustatzea.
- Eskola bakoitzaren errealitatea kontuan izanda, marko legala moldatzea gaur egungo legedia kontuan izanik.
- Eskola ikasle guztientzat irisgarri izateko lan egitea, garapen pertsonalean eta aukera berdintasunean sor daitezkeen oztopoak gainditzeko.
- Hezkuntza departamentuak eta unibertsitateak ezarritako ikuspuntuak kontuan hartzea.
- Etapa ezberdinen arteko trantsituak erraztea, batez ere haur eta lehen hezkuntzaren artekoak, etapa bien arteko apurketarik gertatu ez dadin.
- Zentroaren curriculum proiektuak sortzea konpetentziak kontuan izanda.
- Laguntza pedagogikoa eta curriculumaren garapena, aniztasunaren arretarekin lotzea.
- Irakasle taldeen egonkortasuna bultzatzea.
- Irakasleek, familiarekin batera zentrorako beharrezkoak diren baliabideak erabiltzea guztien ikaskuntza bultzatzeko.

Azkenik, *jarduera inklusiboak* garatzeko baliabideak erabili beharko dira eta baita ikasketa-prozesuak bideratu ere. Horretarako beharrezkoa da ikastetxeko aniztasunaz jabetzea, curriculumaren edukia eta ikasgelan egindako jarduerak berrikustea, espazio eta denboren

antolaketa helburuen arabera egitea, ikasleak motibatzea eta haien beharrianen inguruan hausnarketa egitea, aldez aurretiko ezagutzak erabiltzea, proiektu zabal eta malguak aurrera eramatea eta ikasleen autonomia eta elkarlana bultzatuko dituen ikasgela prestatzea. Eskola inklusiboa sortzeko beharrezkoa da ondorengo helburuak betetzea (Eusko Jaurlaritza, 2012b):

- Euskal hezkuntzako sisteman, kultura, politika eta praktika inklusiboak aurrera eramatea administratiboki hasita ikasgelara arte.
- Ikastetxea aldaketaren motorra izatea, hezkuntza proiektu, curriculum eta esku hartze inklusiboak planteatuz.
- Ikasleen harrera eta trantsizio ezberdinak pertsona bezala garatzen laguntzea.
- Jakintzarako bidea erraztea, ikerketak eta ebaluazio pedagogikoak aurrera eramatea irakasleen prestakuntza hobetzeko eta horretarako praktika inklusibo ezberdinak egitea.
- Hezkuntza komunitateetan familien parte hartzea sustatzea baita agente eta instituzio ezberdinen arteko interakzio ahalbidetuko duten sareak sortzea ere.
- Eskola inklusiboaren printzipioak oinarritzat hartuz antolaketa berri bat sustatzea hezkuntza sistemaren esparru ezberdinetan.

Hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleak sei multzotan sailkatu daitezke eta horietako batzuetan argi geratzen da ikasle etorkinak sartzen direla (Eusko Jaurlaritza, 2012a):

1. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak:

Ikasle hauek mugak izaten dituzte eta bi multzo nagusi bereizten dira. Alde batetik, ezgaitasuna dutenak daude eta bestetik, portaera nahasmen larriak dituztenak aurkitzen dira.

2. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak:

Talde hau heterogeneoa da eta bertan dauden ikasleak honakoak dira, ohi baino motelago ikasten dutenak, ikasteko aparteko zailtasunak dituztenak, atentzio defizita duten ikasleak eta mugako adimen-gaitasuna dutenak. Sarritan, multzo honetan kokatzen dira ikasle etorkinak eta ikasteko zailtasunak izaten dituzte arrazoi ezberdinengatik.

3. *Gaitasun handiko ikasleak:*

Talde zabala da eta bertan aurkitzen diren ikasleak batez besteko adimen-maila baino altuagoa izaten dutenak dira.

4. *Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleak:*

Ikasle hauen eskolatzea bermatu behar da. Haien ibilbidea ezagutu eta hobeto egokituko zaien laguntza eman behar zaie. Puntu honetan aipatzen dena ikasle etorkinei gertatzen zaie, sarritan ikasturteko edozein momentutan hasten direlako eskolara.

5. *Eskolako ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak dituzten ikasleak:*

Talde honetan ikasleak hiru multzotan sailkatzen dira. Alde batetik, hizkuntza ondo menperatzen ez dutenak daude. Bestalde, osasun arazoengatik eskolara etorri ezin direnak. Azkenik, gizarte bazterketako arriskuan dauden ikasleak daude ingurune sozialera, eskolara edo familiara egokitu ezin direnak dira eta hau arrazoi ezberdinengatik eman daiteke (portaera arazoak, eskola porrota ikasteko zailtasunak, berez motibaziorik ez dutenak edo ezer axola ez zaienak, beren kultura-nortasunaren aintzatespenik ez dutenak eta haurtzaroan babesik eduki ez dutenak). Askotan, ikasle etorkinek hizkuntza menperatzeko zailtasunak izaten dituzte eta batzuk gizarte bazterketako arriskuan egoten dira.

6. *Desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak:*

Talde honetako ikasleek ez dituzte besteen bezalako erraztasun eta bitarteko berberak hezkuntza jasotzerako orduan. Argi geratzen da etorkin askok ez dituztela bitarteko berberak izaten eta zailtasunak izaten dituztela gastu ezberdinei aurre egiterako orduan.

Ikasle etorkinentzako hezkuntza –arretarako programaren helburu nagusia hezkuntza kultura, politika eta jardueretan kulturarteko ikuspegia txertatzea da. Programa honetan, hobetu beharrezko oztopo batzuk aipatzen dira: instituzio ezberdinen artean egiten diren politikak, ikasleak eskolaratzean izaten jarraitzen dituzten prozesuak eta bizi behar dituzten trantsizioak, ikastetxeetan aurrera eramaten diren proiektu batzuek izaera globala izan behar da, irakasleen formakuntza beharrezkoa da kultur edo hizkuntza aniztasuna dagoen testuinguruetan lan egiterako orduan, prestakuntza hori praktikan jartzeko planteamenduak egitea, material berriak areagotzea, batez ere euskaraz, eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazio beharra. Kulturarteko eskola izateko, ondorengo helburuak bete behar dira (Eusko Jaurlaritza, 2012b):

- Kulturarteko ikuspegia sendotzea, antolamendu berritzaileak aurrera eramanez eta irakasleen prestakuntzan lan eginez.
- Araudia, programak eta jarduerak eguneratzea, ikasle guztiak modu inklusiboan eskolatu ahal izateko.
- Baliabide bereziak erabiltzea, eskolako aniztasunaren aurrean planteamendu ezberdinak aurrera eramateko.

2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana, eskola inklusiboa eta kultur artekoa izateko beharrari erantzuteko sortu den plana da. Honetan sei ardatz estrategiko zehaztu dira eta bakoitzarekin helburu ezberdin batzuk lortu nahi dira (Eusko Jaurlaritza, 2016):

Ekitatearen aldeko konpromiso instituzionala, ikasle guztien eskolarizazioan aukera berdintasuna lortzeko arauen garapenean aurrerakuntzak egiteko. Plaza orokorretatik kanpo eskolaratzen diren ikasleen aurrean jarraitu beharreko prozesuan elkarlana egon behar da eta ikasle etorkinen eskolatzeko inklusiboa bultzatu behar da eskola eremu guztian.

Informazioa eta komunikazioa, lurralde ezberdinetako bulegoak bultzatu eta koordinatzea familiei eskolaratzearen informazioa emateko. Protokolo ezberdinak garatzen jarraitu behar da eta instituzioen arteko koordinazioa areagotu behar da egoera ezberdinei erantzun egokiak emateko.

Antolaketa kudeaketa, zentro publiko zein kontzertatuetan plaza kopuru orekatua eskaini eta ikasle etorkinen eskolaratze inklusiboa ahalbidetzea eskola eremuan eta sareen artean.

Baliabideak, hizkuntza errefortzua behar duten ikasleei behar bezalako erantzuna eskaini behar zaie eta kulturartekotasuna sustatzeko premiei erantzuna eman behar zaie.

Prestakuntza eta ikerketa, ikasle etorkinei harrera egiteko irakasleen hizkuntza indartzeko profil profesionala zehaztu behar da. Zuzendaritza, irakasle eta familiei inklusioaren inguruko formakuntza ematen jarraitu behar da eta txostenak zein ikerketak egiten jarraitu behar da ikasle etorkinen eskola arrakasta handiagoa lortzeko.

Planak eta programak, ikasle etorkinen esku hartzerako programa zehatzak ezarri eta erabili behar dira eta eskola inguruari irekita egongo diren kulturarteko proiektuak aurrera eramateko inguruko erakunde, elkarte edo gizarte eragileekin batera lan egin behar da.

1.3. Hezkuntza komunitatea

Azken urteetan irakasleak ikusi ahal izan dute haien ikasgelak eta eskolak monokulturalak izatetik multikulturalak izatera pasatzen ari direla eta honek hainbat galdera eta kezka sortu ditu. Multikulturalitatea, lurralde eta kultura ezberdinetako ikasleak hezkuntza zentro berean elkartzea esan nahi du, honek ez du inongo esfortzurik eskatzen instituzioaren aldetik, egoera objektiboa eta errealia delako. Baina, errealitate multikulturaletik kulturartekora igarotzeko eskolak lan handia egin behar du, baita hezkuntza komunitate osoak ere, eta oraindik gaur egun badaude irakasle batzuk egoera hauen aurrean jarrera pasiboa hartzen dutenak eta eskolaren funtzionamendu demokratiko, plural eta heterogeneoan kalteak eragiten dituztenak (Leiva, 2012).

Horregatik, garrantzitsua da irakasleek jaso behar duten formakuntza dimentsio ezberdin hauetan izatea: dimentsio kognitiboa, jarrerakoa, etikoa, prozesu eta metodologikoa, emozionala eta bitartekaritzakoa. Horrez gain, kontuan izan behar da irakasleek formakuntza instrumentala, kontzeptuala, hausnarketa pertsonalekoa, kritikoa edota pedagogikoa ere jaso behar dutela. Baina, ezin da ahaztu, irakasleak hezkuntza komunitatearen barruan dauden pertsonak direla eta gainontzekoek ere formakuntza jaso eta ahotsa izan behar dutela erabaki ezberdinak hartzerako orduan, bestela ez du ezertarako balio izango (Leiva, 2012).

Irakaslearen eginkizuna oso garrantzitsua da eskola inklusibo eta kulturartekoa sortu nahi baldin bada. Baina, aipatzekoa da, aniztasunez beteriko eskoletan oraindik badaudela pasibotasunean oinarritzen diren irakasle batzuk eta horrek eragin zuzena dauka eskolaren egunerokotasuneko funtzionamenduan, batez ere kulturarteko eskola egin nahi denean (Leiva, 2010).

Irakaslea ezinbestekoa da kulturarteko hezkuntza aurrera eraman nahi badugu. Etengabeko formakuntza izan behar dute estrategia eta metodologia ezberdinak ikasi ahal izateko eta horiekin kulturarteko eskola bat sortu ahal izateko, hezkuntzan sortzen diren beharrian ezberdinez ohartzeko edota material egokiak prestatzeko (Sáez, 2001).

Irakasleek kulturarteko eskolaren aurrean daukaten ikuspegia azaltzeko hiru multzo desberdintzen dira (Leiva, 2010):

1. Lehenengo multzoan dauden irakasleek, kultura minoritarioak ikasgelarako eta gainontzeko ikasleentzako negatiboki ulertzen dituzte eta uste dute horren ondorioz, ikasleak haien kompetentziak garatzeko zailtasunak izango dituztela.

2. Bigarren multzoan dauden irakasleek, sentsibiltate eta zabaltasun handiagoz ulertzen dute eskolako aniztasuna, baina ez dute uste haien irakasle lanean eragin handia izango dutenik.
3. Hirugarren multzoan dauden irakasleek, oso baikor ageri dira kulturarteko printzipioetan oinarritzen diren jarduerak aurrera eramateko haien egunerokotasunean, baita ikasle etorkinak era inklusibo batean ikasgelara moldatzeko pedagogia erabiltzera ere.

Kulturarteko hezkuntzaren helburu nagusienetarikoa gizarte multikulturaletan biziko direnen formakuntza aurrera eramatea da, denen arteko kalitatezko elkarbizitza izan dezaten. Horretarako gainontzekoen kulturak ezagutu behar dira, baita besteen ezberdintasun kulturalak ezaugarri baliotsu bezala ulertu ere (Jordán, 2012).

Gertakari kulturalak ez dira aldaezinak edo egonkorrak, pertsonengan gertatzen dira eta eskolak zein irakasleak ere ez dira neutralak eta ezin dituzte jarrera neutralak izan. Baina, postura flexible batean oinarritu behar dira lan egiterako orduan eta aldaketetarako prestatuta egon behar dira (Sáez, 2001).

Egindako ikerketa batzuen arabera, arrazismoak indar handiagoa hartzen du adinarekin batera, hau da 13 urterekin 3 urterekin baino arrazismo handiagoa dago. Hala ere, haur txikiek manifestu zuzenagoak izaten dituzte horrelako jarreretan oraindik “leuntasun” hori erabiltzen ikasi ez dutelako. Ikerketaren arabera, haur mutilek jarrera, sentimendu eta pentsamendu arrazistagoak izaten dituzte neskek baino (Fernandez eta Fernandez, 2006).

Ikasle etorkinak ikasgelan edo egunerokotasunean matematika, geografia edo bestelakoak ikasten dituzten bitartean, haienganako balioespena edota arbuioa nolakoa den ohartzen dira baita zein parekidetasun edo diskriminaziorekin tratatzen zaien ere. Jarrera hauen eragina dute gainontzeko ikasleengan ere eta irakaslea kontziente izan behar da bere jarrerak eta jarduerak pertsona eta profesional bezala daukaten eraginean. Konpromisoa hartu behar du bere balore, jarrera edota ekintzak zaintzeko eta horiekin ikasleentzat eredu egoki bat izateko (Sáez, 2001).

Kulturarteko hezkuntza sortu nahi izanez gero, beharrezkoa da ikasleak egoera hauetan esperientziak bizitzea (Rojas, 2003):

- Balioen inguruko arazo edota egoerak planteatu eta konpontzea.

- Norberaren inguruan libreki eztabaidatzea, iritzia emanez eta besteen iritzia errespetatuz.
- Printzipio, kultura, erlijio edota gertaera historiko ezberdinak alderatu.
- Jarrera justuena defendatu, eroso ez denean ere.

Kulturartekotasuna lantzeko jardura hauek hiru esparru nagusitan egin behar dira. Alde batetik, eskolan zentroan bertan jardura hauek egiteak hezkuntza komunitate osoaren kontzientziak eta inplikazioa ekarriko du (guraso, langile, ikasle, etab.). Bestalde, ikasgelan ere jardura hauek aurrera eraman behar dira, edukietan kulturarteko ikuspegia ezarriz, talde lanerako beharrezkoak diren jarduerak eginez edota balioak lantzeko estrategia ezberdinak erabiliz gatazkak bideratzen ikas dezaten. Azkenik, irakasleen formakuntza beharrezkoa da hau guztia aurrera eramateko, baina baita hezkuntza komunitate osoaren formakuntza ere (Rojas, 2003).

Bestalde, ikasleak kulturarteko hezkuntzan hezi nahi badira, irakasleak materiala moldatu edo prestatu beharko du errealitatera egokituz eta horretarako ondoren azaltzen diren puntu hauek bete behar ditu (Aguado, 1999):

- Kultura gutxituetako ikasleak haien bizitzari dagozkien erabakiak hartzeko gai agertu behar dira.
- Kultura gutxituetako bizi estiloak eta tradizioak aurkezterakoan, hauek haien bizitzetan adierazten dituzten balore eta esanahiekin batera adierazi behar dira.
- Kultura gutxituetan heroizat dauzkaten pertsonak, pertsona horien bizitzetan duten eraginarekin batera azaldu behar dira.
- Erlazio familiarak, laguntzarako erlazio bezala aurkeztuko dira.
- Kultura gutxituetako taldeek egindako esfortzu guztiak baliagarritzat adieraziko dira eta ez jardura ilegal eta negatibotzat.
- Material didaktikoak haurren autokontzeptu positiboa bilatu behar du.
- Materialak ezin du kultura baten nagusitasuna adierazi besteen ondoan.
- Ilustrazioek estereotipoak gainditu eta kultura minorizatuen rol aktibo eta dominatzaileak ere erakutsi beharko dituzte.

- Historian zehar gizartearen garapenean eta historian emakumeak izandako rola modu egokian aurkeztu beharko da.
- Kultura ezberdinetan erabiltzen diren hizkuntzak errespetuz aurkeztu beharko dira, bere erritmo eta intonazio egokian.

Irakasleek estrategia ezberdinak erabili behar dituzte ikasgelan balore positiboak landu ahal izateko eta estrategia horiek ondorengo ezaugarrietan oinarritu behar dira (Rojas, 2003):

- *Zintzotasuna*, egiten duena eta esaten duena bat etorri behar dira. Hau da, ez da batere pedagogikoa irakasleak arrazismoaren aurkako jarrerak sustatzea gero ikasgelan aniztasunaren aurkako irudia ematen badu.
- Ikasgelan sortzen diren *gatazkei aurre egiteko gaitasuna* izan behar du irakasleak. Horretarako, alde aurretiko formakuntza bat jaso beharko du gatazken erregulazioaren inguruan eta entzuketa aktiboa, negoziazioa, enpatia eta bestelakoak landu behar ditu ikasgelan.
- *Ikasgelako ikasle guztiak onartzea*, errespetuz eta begirunez.
- *Ulermena eta konfiantza* oso garrantzitsuak dira. Haurren mundua ulertzen saiatu beharko da eta haienganako konfiantza landu beharko du.
- Ikasle eta irakasleen arteko *feedbacka* egon behar da.
- *Lan kooperatiboak* aurrera eraman behar dira, aurreiritziak eta estereotipoak alde batera uzteko.

Kulturarteko hezkuntzak, hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea ireki eta sustatzen du. Honek esan nahi du kulturartekotasunarekin zerikusia duen edozein esku hartze edo erabakik hezkuntza komunitate osoarengan influentzia izango duela, komunitate osoaren parte hartzea bultzatzen duten prozesuak martxan jarritz. Eskola, instituzio bezala kulturarteko elkarbizitzarako formakuntza gune bilakatzen da, izan ere, ikasle, guraso zein irakasleen arteko interakzioa dagoen espazio bat da eta diskriminazioa baztertuz inklusioa bultzatzen duena (Leiva eta Escarbajal, 2011).

Kulturarteko konbibentzia sustatzeko beharrezkoa da hezkuntza proiektu ezberdinak diseinatu eta aurrera eramatea. Hezkuntza komunitatea da proiektu hauek sustatzeko inizatiba eta konpromisoa hartu behar duena, gerora eskola ingurunera ere zabaltzeko. Erabakiak

hartzeko aukera izatea oso garrantzitsua da bai ikasle, irakasle, familia zein hezkuntza komunitateko beste kideentzat ere, horrela eskola guztiena dela sentitu dezaten. Eskolak, irakasleak, familiak eta ikasleak doitu behar ditu aniztasun kulturala onartu eta errespetatu dezaten; testuinguru multikulturaletan komunikatzen ikas dezaten; identitate kulturalaren inguruan kontzientzia hartu dezaten; etnozentrismoa alde batera uzteko eta aurreiritzi zein estereotipoekin amaitzeko (Leiva eta Escarbajal, 2011).

2. Helburuak eta hipotesiak

Kulturartekotasuna eguneroko bizitzarekin lotura duen gertakizuna da eta beraz, lan honen helburu nagusia eskolan ildo honen inguruan dagoen errealitatea ezagutzea da.

Kontuan izan behar dugu, kulturartekotasuna, herrialde eta kultura ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizi behar direnean gertatzen dela eta, beraz, sarritan etorkin hitzak kutsu negatiboa duen arren, ez dela zertan horrela izan behar. Helburu nagusi honetatik abiatuz, ikerketa lan honek beste helburu zehatz hauek ere baditu:

1. Eskolako aniztasun kulturalaren errealitatea ezagutzea.
2. Hezkuntza komunitateak, inklusioaz eta kulturartekotasunaz duen ikuspegiak jabetzea.
3. Eskolak, kulturarteko hezkuntzaren inguruan egindako lana deskribatzea.

Helburu hauek finkatuta izanik, ondorengo hipotesi hauek planteatzen dira:

- Lehenengo helburuari lotuta, aniztasun kulturala dago.
- Bigarren helburuari dagokionez, familiek, irakasleek zein ikasleek eskolako inklusioa eta kulturartekotasuna positiboki baloratzen dituzte.
- Hirugarren helburua kontuan hartuz, eskolan kulturartekotasuna lantzen dute.

3. Esparru praktikoa: Eskola bateko kulturartekotasunaren errealitatea behatzen

3.1. Metodologia

Ikerketa honen atal praktikoa aurrera eramateko erabili den metodoari dagokionez ondorengo lau multzoak bereizi daitezke.

- **Parte hartzaileak:**

Hezkuntza komunitateko kide ezberdinek hartu dute parte. Guztira 26 familia, 36 ikasle eta 17 irakaslek hartu dute parte. Talde horiei galderak egitea erabaki da, aldez aurretik egindako lan teorikoaren ondoren ondorioztatu delako kulturarteko hezkuntza bermatzeko beharrezkoa dela hezkuntza komunitateko kide guztiek bertan parte hartzea eta haien ikuspegia ezagutu nahi izan da.

Galdetegiaren antolaketari dagokionez, ikasleen kasuan, lehen hezkuntzako ikasleei egitea erabaki da haur hezkuntzakoak galdera horiei erantzuteko txikiegiak direla uste delako. Lehen hezkuntzako maila bakoitzeko (guztira 6 maila) sei haurrei egin zaie galdeketa, horietatik ikasgela bakoitzean 3 haur kultura euskaldunekoak izan dira eta beste 3 haur kultura ez euskaldunekoak.

Parte hartu dutenen artean, lehen hezkuntzako ikasleen 13 familia kultura euskaldunekoak izan dira eta beste 13 kultura ez euskaldunekoak.

Kultura ez euskalduneko ikasle eta gurasoen artean honako jatorri ezberdinetako kulturetakoek hartu dute parte: Etiopia, Maroko, Nigeria, Pakistan, Argelia, Guinea, Paraguay, Mauritania, Senegal, Ghana, Txina eta Euskal Herriko kultura ijitoa.

Irakasleei dagokionez, guztira 17 irakasleri egin zaie galdeketa. Horien artean honakoak daude, 10 irakasle tutore, laguntza bereziko 5 irakasle, musikako irakasle bat eta ingeleseko irakasle bat.

- **Erabilitako tresnak:**

Atal praktikoa egiteko erabili diren tresnak galdetegiak izan dira. Hiru galdetegi ezberdin prestatu dira. Alde batetik, familiei egindako galdetegiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzi dira guztiek uler ditzaten eta galderak kulturartekotasunaren inguruan daukaten ikuspegia ezagutzeko bideratuta daude. Bestalde, irakasleei egindako galdetegiak euskaraz idatzita egon dira eta horien bidez ikasgelan eta eskolan kulturartekotasuna lantzeko egindako

lana ezagutu nahi izan da. Azkenik, ikasleen galdetegiak haiek eskola barruan kulturartekotasunaz daukaten ikuspegia ezagutu nahi izan da.

- **Prozedura:**

Gasteizen kokatuta dagoen ikastetxe publiko batean egin da ikerketa. Horretarako aurretik egindako behaketa pasibo batzuen ostean galdetegiak prestatu dira.

Ikastetxe honetan D eredia da eskaintzen duten eredu bakarra eta haur hezkuntzatik lehen hezkuntzara arteko gelak daude. Galdetegiak otsaila amaieratik martxoaren hasiera bitartean egin dira. Praktika aldian egonda eskolarekin zegoen harremana baliatu da haiekin kontaktuan jartzeko eta honek lana erraztu du datuak jasotzerako orduan.

Irakasleei eskolan bertan banatu zaie galdetegia eta norberak berea bete du. Ikasleak banan-banan atera dira ikasgelatik eta haiei zuzenean galderak eginez galdetegiak bete dira. Familiei dagokionez, galdetegiak prestatu zaizkie eta haien haurren bidez iritsi zaie galdetegia etxera.

Galdetegiaren helburua, ikastetxe honetan dagoen kulturartekotasunaren inguruan hausnartzea izan da, horretarako, ikastetxearen aniztasun kulturean, hezkuntza komunitatearen ikuspegia eta eskolako irakasleek egiten duten lana aztertu dira.

- **Datuen tratamendua:**

Datuak biltzeko hiru galdetegi prestatu dira (1, 2. eta 3. Eranskinak). Galdetegiak zentroko irakasle, familia eta ikasleei egin zaizkie. Bertan dauden galderak era kualitatiboan daude adierazita eta erantzunak bai/ez formatuan jasotzea erabaki da.

Galdetegiaren erantzunak modu kuantitatiboan zenbatu dira, jasotako erantzunetan baiezkoen kopurua zenbatuz.

Baiezkoen erantzunak kontuan izanda taula batzuk bete dira (ikus emaitzetan). Taulatan galderak eta baiezkoen erantzunak ageri dira ehunekoetan. Erantzunak bi multzotan sailkatuta ageri dira. Alde batetik, kultura euskalduneko erantzunak eta, bestetik, kultura ez euskalduneko erantzunak. Irakasleen kasuan, aldiz, baiezkoen ehunekoak ageri da.

Taula horietako datuekin grafiko batzuk sortu dira eta horien bidez, familien eta ikasleen emaitzekin, kultura euskalduneko eta kultura ez euskalduneko arteko aldea modu grafikoan ikusi nahi izan da horien artean dauden desberdintasunak argiago ikusi ahal izateko. Hori nabariago izateko bi kolore desberdinak dira. Kolore urdinarekin kultura euskalduneko

ikasle eta familien baiezko erantzunak ageri dira eta kolore laranjarekin kultura ez euskalduneko ikasle eta familien baiezko erantzunak daude. Irakasleen grafikoen kasuan, galdera bakoitzari baietz erantzundakoen arteko aldea ikusi nahi izan da.


3.2. Emaitzak

Galdetegiak bete ostean eta datuak bildu eta gero, familien baiezkoen erantzunak biltzen dituzten 1. Taula eta 3. Grafikoa sortu dira, emaitzen ehunekoak eta erantzunen arteko aldeak ezagutu ahal izateko.

1. Taula. *Familiak*

| GALDERA | KULTURA EUSKALDUNA (Baiezkoen %) | KULTURA EZ EUSKALDUNA (Baiezkoen %) |
|--|--|---|
| 1. Haurrak eskolara eraman zenituenean, egin zizuten harrera positiboki baloratzen duzu? | %100 | %92 |
| 2. Zure ustez, eskolak zure kulturaren inguruko interesa dauka? | %92 | %62 |
| 3. Eskolan zure kulturaren inguruko jarduerak antolatzea gustatuko litzaizuke? | %100 | %92 |
| 4. Irakaslearekin duzun komunikazioa nahikoa dela uste duzu? | %92 | %92 |
| 5. Eskolak bidaltzen dituen oharrak ulertzeko zailtasunak dituzu? | %23 | %31 |

| | | |
|---|-----|-----|
| 6. Eskolako gurasoen parte hartzen duten talderen bateko kide izan zara noizbait? | %85 | %46 |
| 7. Normalean, eskolak antolatutako jardueretan parte hartzen duzu? | %85 | %54 |



3. Grafikoa. Familien galdetegiaren emaitzak.

Galdeketa egin duten familia guztiak kontuan hartuta, guztira 26 izan dira (13 euskal kulturakoak eta 13 euskal kulturakoak ez direnak). Haurrak eskolara eramaterakoan izan zuten harrera positiboki baloratzen duten kultura euskalduneko familiak %100 izan dira eta kultura ez euskaldunekoak, aldiz, %92. Beraz, argi eta garbi ikusten da kopurua ia parekatua dagoela eta ez dagoela aldageta handirik.

Eskolak norberaren kulturaren inguruko interesa duen edo ez galdetu zaienean, kultura euskalduneko %92 familiak baietz esan dute eta %62 izan dira baietz esan duten familia ez euskaldunak. Antzeman daiteke kopurua murrizten dela kultura ez euskaldunekoiei erreparatuz gero.

Eskolak norberaren kulturaren inguruko jarduerak antolatzea gustatuko zitzaien edo ez galderaren erantzunean, kultura euskalduneko familiak % 100 baietz erantzun dute eta familia ez euskalduneko %92 izan dira baietzkoa eman dutenak. Beraz, ez dago desberdintasun askorik batzuek eta besteen artean.

Irakasleekin daukaten komunikazioa nahikoa den galdetu zaienean, kultura euskalduneko %92 familiek baietzkoa erantzun dute eta %92 izan dira baietz esan duten kultura ez euskalduneko familiak. Esan dezakegu, ia guztiek baietz erantzun dutela.

Eskolak bidaltzen dituen oharrak ulertzeko zailtasunak dituzten galdetzerakoan, kultura euskalduneko %23 izan dira baietz esan dutenak eta, aldiz, kultura ez euskalduneko %31 izan dira baietz erantzun duten familiak. Orduan, kultura ez euskaldunekoek izaten dituzte zailtasun handiagoak.

Gurasoek parte hartzen duten talderen bateko kide izan diren kultura euskalduneko familiak %85 izan dira eta aldiz %46 izan dira parte hartu duten kultura ez euskaldunetako familiak. Argi ikusten da kultura euskaldunekoek kopurua handiagoa dela ez euskaldunekoek kopuruarekin alderatuta.


Eskolak antolaturiko jardueretan parte hartzen duten kultura euskalduneko familiak %85 izan dira eta kultura ez euskaldunekoak %54 izan dira. Beraz, kultura euskalduneko familiak dira gehien parte hartzen dutenak.

Ondoren, irakasleen erantzunak 2. Taulan, 4. eta 5. Grafikoetan bildu dira.

2. Taula. *Irakasleak*

| Galdera | Baiezkoen % |
|---|--------------------|
| 1. Euskal kulturakoak ez diren beste kulturaren bateko ikasleren bati klasea ematen diot. | % 100 |
| 2. Ikasgelako ikasle guztien kulturen inguruan informatu naiz. | % 65 |

| | |
|---|-----|
| 3. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili dut. | %70 |
| 4. Eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut. | %47 |
| 5. Ikasgelako materiala errealitatera egokitzeke moldatu edo prestatzen dut. | %94 |
| 6. Erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen da beste batzuen gainetik. | %70 |
| 7. Erabiltzen ditudan materialetako ilustrazioek estereotipoak gainditzen dituzte. | %65 |
| 8. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut. | %53 |
| 9. Ikasgelan Printzipio, kultura, erlijio edota gertaera historiko ezberdinak alderatu ditugu. | %41 |
| 10. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudun formazioa nahikoa dela. | %18 |




4. Grafikoa. Irakasleen galdetegien emaitzak I.

Irakasleen galdetegien emaitzei erreparatuz gero, handienetik txikienera egingo da azalpena. Hasteko baiezkoen ehuneko handiena jaso duten erantzunak azalduko dira eta amaitzeko emaitza baxuenak azalduko dira. Irakasleak 17 izan dira guztira. Guztiek, hau da, %100 esan dute euskal kulturakoa ez den beste ikasleren bati klasea ematen diotela.

Ikasgelako materiala errealitatera egokitzeko prestatzen edo moldatzen duten irakasleak %94 izan dira.

Ikasle berri bat heldu denean harrera plana erabili izan duten galdetu zaienean %70 izan dira baiezkoa eman dutenak.

Irakasleak %65 izan dira ikasgelako ikasle guztien kulturen inguruan informatu direnak. Bestetik, %47 irakasle dira eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen dituztenak.



5. *Grafikoa.* Irakasleen galdetegiaren emaitzak II.

Erabiltzen dituzten materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela adierazi dute %70-ek. Materialetako ilustrazioek estereotipoan gainditzen dituzte %65-en ustez.

Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu dituzten irakasleak %53 izan dira. Bestalde, %41 izan dira ikasgelan printzipio, kultura edota gertaera historiko ezberdinak alderatu dituztenak.

Azkenik, formakuntzari dagokionez, %18 dira kulturartekotasuna lantzeko formakuntza nahikoa dutela uste dutenak. Ikaslearen erantzunak jaso eta gero, emaitzak 3. eta 4. Taulan, eta 6. eta 7. Grafikoetan bildu dira.

3. Taula. *Kultura euskalduneko ikasleak*

| Galdera/ikasgela | 1.maila | 2.maila | 3.maila | 4.maila | 5.maila | 6.maila | Guztira % |
|--|---------|---------|---------|---------|---------|---------|-----------|
| 1. Eskolan nire kulturaren inguruko interesa dagoela uste dut. | 3 | 3 | 3 | 3 | 2 | 3 | %94 |

| | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|---|------|
| 2. Eskolan nire herrialdearen inguruko jarduerak egin izan ditugu. | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | %100 |
| 3. Nire kultura, beste ikasle batzuen kultura baino garrantzitsuagoa dela uste dut. | 1 | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 | %44 |
| 4. Ikasgelan, nire kulturaren inguruko jarduerak egitea gustatuko litzaidake. | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | %100 |
| 5. Ikasgelako liburuetan agertzen diren pertsonen irudiekin identifikatuta sentitzen naiz. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | %6 |
| 6. Ikasgelan nire herrialdeko hizkuntza, ohitura edota errealitateari buruz hitz egin izan dugu. | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | 3 | %89 |
| 7. Ikaskideek nire jatorriarengatik gutxietsi naute. | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %6 |


| | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|---|----|
| 8. Ikaskideek nire jatorriarengatik baztertu naute. | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %6 |
| 9. Irakasle batek nire jatorriarengatik gutxietsi nau. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %0 |
| 10. Irakasle batek nire jatorriarengatik baztertu nau. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %0 |

4. Taula. *Kultura ez euskalduneko ikasleak*

| Galdera/ikasgela | 1.maila | 2.maila | 3.maila | 4.maila | 5.maila | 6.maila | Guztira % |
|---|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|------------------|
| 1. Eskolan nire kulturaren inguruko interesa dagoela uste dut. | 0 | 0 | 1 | 0 | 2 | 0 | %17 |
| 2. Eskolan nire herrialdearen inguruko jarduerak egin izan ditugu. | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | %17 |
| 3. Nire kultura, beste ikasle batzuen kultura baino garrantzitsuagoa dela uste dut. | 3 | 0 | 2 | 0 | 0 | 1 | %33 |

| | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|---|-----|
| 4. Ikasgelan, nire kulturaren inguruko jarduerak egitea gustatuko litzaidake. | 3 | 3 | 2 | 3 | 3 | 1 | %83 |
| 5. Ikasgelako liburuetan agertzen diren pertsonen irudiekin identifikatuta sentitzen naiz. | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | %11 |
| 6. Ikasgelan nire herrialdeko hizkuntza, ohitura edota errealitateari buruz hitz egin izan dugu. | 0 | 2 | 1 | 0 | 3 | 2 | %44 |
| 7. Ikaskideek nire jatorriarengatik gutxietsi naute. | 2 | 0 | 2 | 1 | 0 | 0 | %28 |
| 8. Ikaskideek nire jatorriarengatik baztertu naute. | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | %17 |
| 9. Irakasle batek nire jatorriarengatik gutxietsi nau. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %0 |
| 10. Irakasle batek nire | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | %0 |

| | | | | | | | |
|--------------------------------|--|--|--|--|--|--|--|
| jatorriarengatik baztertu nau. | | | | | | | |
|--------------------------------|--|--|--|--|--|--|--|



6. Grafikoa. Ikasleei egindako galdetegiaren emaitzak I.


Ikasleen erantzunak aztertzen baditugu, guztira 36 ikaslek (18 kultura euskaldunekoak eta 18 kultura ez euskaldunekoak) erantzun dute. Kultura euskalduneko %94 ikaslek uste dute eskolan haien kulturaren inguruko interesa dagoela eta, aldiz, %17 dira interes hori ikusten duten kultura ez euskalduneko ikasleak.

Eskolan haien herrialdearen inguruko jarduerak egin izan dituztela diote euskal kulturako %100 eta %17 dira baietz erantzun duten kultura ez euskalduneko ikasleak.

Norberaren kultura beste batzuk baino garrantzitsuagoa den galdetu zaienean, kultura euskalduneko %44 ikaslek baiezkoa eman dute eta kultura ez euskalduneko %33 ikasle izan dira baietz esan dutenak.

Haien kulturen inguruko jarduerak egin nahi dituzte euskal kulturako ikasle guztiek eta baietz esan duten euskal kulturakoak ez diren ikasleak, aldiz, %83 izan dira.

Azkenik, ikasgelako liburuetan agertzen diren pertsonekin identifikatuta sentitzen dira euskal kulturako ikasleen %11 eta euskal kulturako ikasleen artean %6 izan da baietz erantzun duena.



7. Grafikoa. Ikasleei egindako galdetegiaren emaitzak II.

Ikasgelan haien herrialdeko hizkuntza, ohitura edota errealitateari buruz hitz egin dela baieztatu dute kultura euskalduneko %89 eta, aldiz, %44 izan dira baietz esan duten kultura ez euskalduneko ikasleak. Kultura euskalduneko %6 izan da bere jatorriarengatik ikaskideek gutxietsi dutela erantzun duena eta, bestalde, %28 izan dira baietz erantzun duten kultura ez euskalduneko ikasleak.

Haien jatorriarengatik ikaskideren batengandik baztertua izan dela erantzun du kultura euskalduneko %6-ak eta kultura ez euskalduneko %17-ak.

Irakasleren batek haien jatorriarengatik gutxietsi edota baztertu izan dituen galdetu zaienean kultura euskalduneko zein kultura ez euskalduneko ikasle guztiak ezetz erantzun dute.

3.3. Ondorioak

Emaitza guztiak bildu ondoren eta alde aurretik aipatutako helburu eta hipotesiak kontuan izanda, honako ondorio hauek atera dira.

Lehenengo hipotesia, eskolan aniztasun kulturala dagoela da eta egiaztatu egin da. Hasteko, eskolan aniztasun kultural handia dago, izan ere, ikerketa txiki honetan parte hartu duten ikasle eta gurasoen jatorria anitza izan da eta kontuan izan behar da eskolako partaide direnen zati txiki batek soilik parte hartu duela. Guztira, kultura ez euskalduneko maila ezberdinetako 18 ikaslek parte hartu dute eta familiei dagokionez 13 izan dira. Honako herrialdeetako kulturetakoak izan dira parte hartzaileak: Etiopia, Maroko, Nigeria, Pakistan, Argelia, Guinea, Paraguay, Mauritania, Senegal, Ghana, Txina eta Euskal Herriko kultura ijitoa. Horrez gain, irakasle guztiek baieztatu dute kultura ez euskalduneko ikasleren bati klasea ematen diotela. Baina zein arrazoiengatik gertatzen da hau? Honako hau emateko bi arrazoi ezberdinu daitezke.

Alde batetik, globalizazioak pertsona eta kultura ezberdinen mugikortasuna bideratzen du eta azken urteetan honek gora egin du. Bizi garen mundu hau, bizitzeko modu anitzez osatuta dago duela milioika urte sorturikoak eta globalizazioaren ondorioz kultura ezberdinetako pertsonak elkarbizitzen hasi dira toki berean (Marín, 2002).

Bestalde, “Save the Children”-ek egindako txostenaren arabera azken 10 urteetan irizpide sozioekonomikoengatik gertatutako eskolako segregazioa %8,7 hazi da. Horien artean segregazio oso altua duten ikastetxeen %90 ikastetxe publikoak dira eta %10 soilik kontzertatukoak. Horrez gain, eskola ghetto hauetan dauden ikasleen %68,8-ak perfil sozioekonomiko baxua du. Azkenik, aipatzen da ikastetxeei baliabide gehiago ematea beharrezkoa dela, zentro kontzertatuetako kuotak gehiago kontrolatzea eta benetako doakotasuna bermatzen dutela ziurtatzea ere (errekurtso gutxien dituzten familiak ere joan ahal izateko) puntu garrantzitsuak dira. Euskadiko hezkuntzako zentroek ez dute gizarteko heterogeneotasuna islatzen (El Diario Vasco, 2018ko Apirilak 25).

Bigarren hipotesia, familiek, irakasleek zein ikasleek eskolako inklusioa eta kulturartekotasuna positiboki baloratzen dituztela da eta ez da bete. Hezkuntza komunitateak inklusioaz eta kulturartekotasunaz duen ikuspegia baloratzerako orduan, esan dezakegu ez dela horren positiboa. Izan ere, gurasoen emaitzak kontuan hartuta, kultura ez euskalduneko familietatik %62 izan dira eskolan haien kulturaren inguruko interesa dagoela uste dutenak eta

alde handia dago euskal kulturako familiek esandakoarekin alderatuz gero, izan ere, %92-k interesa ikusten dutela aipatu dute.

Irakasleei dagokionez, %41 baino ez dira ikasgelan printzipio, kultura edota gertaera historiko ezberdinak alderatu dituztenak.

Ikasleei dagokionez, argi geratzen da kultura euskalduneko eta ez euskalduneko arteko aldea. Alde batetik, eskolak norberaren kulturaren aldeko interesa duen galdetzerakoan kultura euskalduneko ia gehienek baietz erantzun dute eta aldiz %17 dira interes hori ikusten duten kultura ez euskalduneko ikasleak. Bestalde, eskolan haien kulturen inguruko jarduerak egin dituztela aipatu dute euskal kulturako ikasle guztiek eta %17 izan dira kultura ez euskaldunekoak, beraz, aldea nabaria da. Azkenik, ikaskideak jatorriarengatik baztertu dituzten ikasleen artean kopuru handiagoa dago kultura ez euskalduneko artean, izan ere, kultura euskalduneko %6 izan da gutxietsia eta baztertua eta, bestalde, kultura ez euskalduneko %28 ikasle izan dira gutxietsiak eta %17 baztertuak.

Beraz, esan dezakegu kultura ez euskalduneko familia eta ikasleek ez dutela eskolan haien kulturaren inguruko interesik ikusten. Baina, zein izan daiteke honen guztiaren arrazoia? Honi erantzuteko bi arrazoi nagusi egon daitezke.

Alde batetik, harrera ona izan dutela diote kultura ez euskalduneko ia familia gehienek %92-k positiboki baloratu dute. Eskolako harrera plana ikaslearen lehenengo asteetarako planteatuta dago eta familiak eroso sentitu badira, esan dezakegu alde positiboa baduela harrera honek. Gainera, ikerketa egindako eskolako harrera planari erreparatuz gero, honako puntu hauek aipatzen dira, beste batzuen artean: ikaslearen kultura eta hizkuntza positiboki baloratuko dira, kultura minoritarioen aspektu ezberdinak ikasgelako programazioan sartuko dira eta gelan hizkuntza gutxituen presentzia sartuko da. Baina familiek eta ikasleek daukaten ikuspuntuaren arrazoia horren ondoren jarraipenik egon ez eta kulturartekotasuna lantzen ez dela izan daiteke, izan ere, eskolan kulturartekotasuna lantzeko beharrezkoa da hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea bermatu eta eskolako errealitatea islatuko duen parte hartze organoak egotea. Baina puntu honetan zentratuz gero, eta grafikoei erreparatzen badiegu, alde handia dago familien artean. Izan ere, euskal kulturako %85-ek parte hartu dute gurasoak egoten diren eskolako talderen batean eta, aldiz, ia horien erdiak %46 izan dira parte hartu duten kultura ez euskalduneko familiek. Jardueretan parte hartzen duten familien artean ere aldeak badaude, kultura euskaldunekoak %85 eta ez euskaldunekoak, aldiz, %54 izanik.

Bestalde, bigarren arrazoa izan daiteke, lan handia egin dela euskal eskola publikoetan D eredia eta euskal kultura bermatzeko. Izan ere, kontuan izan behar da euskal kultura bi kultura nagusiren artean zapaldua dagoela. Alde batetik, kultura espainola dago eta, bestalde, kultura frantsesa. Horregatik, kontuan izan behar da eskolak Euskal Herriko kultura bermatzeko egiten duen lan handiaren ondorio bat izan daitekeela. Horrekin lotuta, gainontzeko kulturei behar duten garrantzia eskaintzeko denbora edota estrategiarik ez izatea eta familiak zein ikasleak euskal kulturaren murgildu behar izatea.

Azken hipotesia, eskolan kulturartekotasuna lantzen dutela da eta ez da guztiz bete. Eskolak, kulturarteko hezkuntzaren inguruan lan handiagoa egin behar dela esan dezakegu. Ateratako emaitzei erreparatu gero, positiboa da familia gehienek (kultura euskalduneko %92 eta kultura ez euskalduneko %92) irakaslearekin duten komunikazioa nahikoa dela aipatzea.

Bestalde, ikasgelako materiala errealitatera egokitzeko moldatu edo prestatzen dutela diote irakasleen %70-ak. Irakasleen ikuspuntutik ez dira irakasleren bategatik gutxietsiak edota baztertuak sentitu.

Baina, badaude kopuru murriztagoa jaso duten erantzun batzuk ere, %65 irakasle informatu dira haien ikasleen kulturen inguruan; irakasleen %47-k ezagutzen ditu eskolako programa ezberdinak, erdiak baino gehiago %53 dira ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak egin dituztenak; oso ikasle gutxi sentitzen dira identifikatuta liburuetako pertsonen irudiekin (%17 guztira) eta, azkenik, ikasgelan haien kulturen inguruan hitz egin dutela esan duten ikasleen artean aldeak daude, kultura euskaldunekoak %89-k baietz esan dute eta, aldiz, kultura ez euskaldunekoak %17 izan dira baietz esan dutenak.

Ezin da aipatu gabe utzi, irakasle gehienek kulturartekotasuna lantzeko daukaten formazioa nahikoa ez dela uste dutela, hain zuzen ere, formakuntza nahikoa dutela aipatu dutenak %17 baino ez dira izan. Zein dira hau horrela izateak atzean dauzkan arrazoiak? Honako arrazoi ezberdinengatik eman daitekeela ondorioztatu da.

Alde batetik, arrazoi bat izan daiteke aurretik aipatu bezala, irakasleak kulturarteko eskolaren ikuspegiari, hiru multzoetako bigarrenean kokatzen direla. Hau da, irakasleek sensibilitate eta zabaltasun handiz ulertzen dute eskolako aniztasuna, baina ez dute uste haien irakasle lanean eragin handia izango duenik (Leiva, 2010).

Bestalde, kulturarteko hezkuntza sustatzeko beharrezkoa da hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea eta hutsune legal baten aurrean aurkitzen gara. Gainera, irakasleek egiten duten lan gehiena etorkinak “hemengo” kulturara egokitzeke izaten da (Bernabé, 2013).

Azkenik, beharrezkoa da eskoletan erreforma inklusiboak egitea irakasleak, curriculuma, antolamendua, etab. aldatzeko eta egokitzeke, baina berrantolaketa global bat egin behar da bakoitzaren beharizaneie erantzun egoki bat emateke eta ez soilik eskola “moldatzea” bertan pertsona talde ezberdinak sartu ahal izateke (Parrilla, 2002).

3.4. Lanaren mugak eta etorkizunari begira hobetzeko proposamenak

Lan honetan kulturartekotasunaren gaia jorratzea erabaki da, orain arte izandako esperientzian ikusi ahal izan delako eskoletan gero eta kultura aniztasun handiagoa dagoela arrazoi ezberdinak direla medio eta honek elkarbizitzarako dakartzan alde positiboen inguruan hausnartzea eta izan behar duen garrantzia ematea ezinbestekotzat ulertzen delako.

Ikerketaren formatua egitea erabaki da arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, uste delako teorian irakurritako guztia alde praktikoarekin eta errealitatean behatutakoarekin kontrastatuz gero, aberasgarriagoa izango dela lan hau. Bestalde, uste delako erabilgarria izango dela etorkizun batean hezitzaile izango garenerako zein aspektutan zentratu behar garen jakiteko.

Lan hau egiterakoan hainbat zailtasun aurkitu dira. Aipatu beharra dago ezberdintasun handiak daudela atal teorikoaren eta atal praktikoaren artean.

Atal teorikoari dagokionez, ez da erraza izan gai hain zabala hartu eta puntu zehatz batzuetan zentratzea. Hasiera batean kulturartekotasuna nola landu behar denaren inguruko lana egin nahi izan da, baina lan honetarako gai hori zabalegia denez, kulturartekotasunaren esanahia zein den eta horren inguruan gaur egun arte egindako lanean zentratzea erabaki da.

Zailtasun handienak aurkitu diren atala praktikoa izan da. Batez ere, galdetegiak nola egin behar diren eta zein puntutan zentratu behar izan den horiek egiterako orduan. Bestalde, galderak prestatzerako orduan aukeratutako galderak ez dira nahi bestekoak izan; izan ere, lan honetan sartu ahal den informazio kopurua errespetatu behar izan da eta, beraz, planteatutako galderak murriztu behar izan dira.

Horrez gain, galderak egiteko aurretik ere gurasoekin egon nahi izan da baina denbora eta haien arrazoi pertsonalak direla medio ezin izan da horrela izan. Galdetegiak egin ostean ere ondorioak ateratzea ez da erraza izan, aspektu asko izan behar dira kontuan.

Izandako mugak kontuan hartuta, kontuan izan behar da bi irakasle ordezekoak direla eta beraz ez dutela inoiz ikasle berririk ikasgelan izan, beraz ez dute harrera plana erabili egoera suertatu ez zaielako. Bestalde, musikako eta ingeleseko irakasleek lehen hezkuntza osoan ematen dute klasea eta hortaz kontuan izan behar da ikasle guztien inguruan informatzeko zailtasunak dituztela. Hobekuntza moduan etorkizuneko ikerketan hobe da posible den heinean tutoreei eta finko dauden irakasleei galdetegia egitea.

Horrez gain ez da erraza izan galderak aukeratzea eta hobekuntza moduan galdera guztiak baieztatu eran idaztea komeni da emaitzetan aldaketa handirik ez nabaritzeko.

Etorkizunari begira, ikerketarekin jarraitzeko beharra ikusten da. Ikerketa bera eskola pribatu batean egin beharko zela ondorioztatzen da, egoera hau zentro publikoetan gailentzen dela baieztatzeko. Horrez gain, beharrezkoa da kulturartekotasunaz gain inklusioaren barruan sartzen diren beste lerro batzuk aztertzea, eskola inklusiborako bidean aurrera egiteko. Azkenik, ikerketa hauek eskoletara zabaltzea beharrezkotzat ikusten da, eskola eta gizartearen errealitatea bat etortzeko eta kulturartekotasunaren inguruan egin behar diren aldaketa guztiak teoriarik geratu beharrean modu praktikoa ere aurrera eramateko.

4. Erreferentziak

- Aguado, O. M. (1999). *La educación intercultural: concepto, paradigmas, realizaciones*. 2018ko otsailaren 15ean hemendik berreskuratua: <http://red.pucp.edu.pe/ridei/files/2011/08/0908041.pdf>.
- Bernabé, V. M. (2013). *Legislación educativa española e interculturalidad: cambios necesarios*. 2018ko urtarrilaren 16an hemendik berreskuratua: <http://www.hekademos.com/hekademos/media/articulos/13/07.pdf>.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2012a). *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2017ko abenduaren 20an honako webgune honetatik berreskuratua: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2012b). *Ikasle Etorkinentzako hezkuntza-arretarako plana, eskola-eredua inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2017ko abenduaren 15ean honako webgune honetatik berreskuratua: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig1/eu_2084/adjuntos/120009e_Pub_EJ_etorkin_plana_e.pdf.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2016). *2016-2020ko eskola inklusiboaren eremuan eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018ko martxoaren 25ean honako webgune honetatik berreskuratua: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11488/II_Plana_ikasle_etorkinei_arreta_emateko.pdf?1523359704.
- Fernández, C. A. eta Fernández, J. D. (2006). *Valoración del prejuicio racial en la infancia: adaptación preliminar de la escala de prejuicio racial sutil y manifiesto*. Universidad de Granada. 2018ko urtarrilaren 16an hemendik berreskuratua: <http://hera.ugr.es/doi/16655199.pdf>.

- Jordán, S. J. (2012). *Educación para la convivencia intercultural*. 2018ko otsailaren 14an hemendik berreskuratua: <http://www.aulaintercultural.org/IMG/pdf/jordan.pdf>.
- Leiva, J. J. (2010). Práctica de la interculturalidad desde la perspectiva docente: análisis y propuestas pedagógicas. *Cultura y Educación*, 22(1), 67-84.
- Leiva, J. J. (2012). La formación en educación intercultural del profesorado y la comunidad educativa. *Revista Electrónica de Investigación y Docencia (REID)*, 2, 8-31.
- Leiva, J. J. eta Escarbajal, F. A. (2011). La participación de las familias inmigrantes como fundamento pedagógico en la construcción de la interculturalidad en la escuela. *Educatio siglo XXI*, 29(2), 389-415. 2018ko otsailaren 10ean hemendik berreskuratua: <http://revistas.um.es/educatio/article/view/133121/122821>.
- Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca. Boletín Oficial del Estado (2012). 2018-4-5ean berreskuratuta <https://www.boe.es/boe/dias/2012/02/10/pdfs/BOE-A-2012-2008.pdf> -tik
- Marín, J. (2002). Globalización, educación y diversidad cultural. *Perspectiva*. 2018ko apirilaren 15ean hemendik berreskuratua: <file:///C:/Users/Iratii/Downloads/10389-31641-1-PB.PDF>.
- Oion, E. R. (2003). Educación intercultural, la óptica del Norte. 2018ko martxoaren 15ean hemendik berreskuratua: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15763/OION%2cRakel_Educacion%20Intercultural%20%282003%29.pdf?sequence=1&isAllowed=y.
- Parrilla, L. A. (2002). *Acerca del origen y sentido de la educación inclusiva*. Bertsio digitala. 2018ko urtarrilaren 4an hemendik berreskuratua: <https://www.mecd.gob.es/dctm/revista-de-educacion/articulos327/re3270210520.pdf?documentId=0901e72b81259a76>.
- Rojas, R. G. (2003). *Estrategias para fomentar actitudes interculturales positivas en el aula*. 2018ko urtarrilaren 25ean hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/1975774>.
- Sáez, A. R. (2001). *Tendencias actuales de la educación intercultural*. Ponencia presentada en las "Jornadas sobre Interculturalidad: Educar en las Aulas. Retos del siglo XXI". Murcia. 2018ko urtarrilaren 20an hemendik berreskuratua: <http://www.aulaintercultural.org/spip.php?Article37>.

Save the Children dice que una de cada diez escuelas vascas puede ser calificada como gueto.
(2018ko Apirilaren 25ean). *El Diario Vasco*.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Familientzako galdetegiak

Guraso agurgarriak, Gasteizeko Unibertsitateko ikaslea naiz. Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz eskola honetako “kulturartekotasuna” aztertzeko. Lana aurrera eramateko zuen laguntza behar dut eta eskertuko nizueke ondorengo galderak erantzungo bazenituzte. Guztiz anonimoa izango da, helburua erantzun hauekin estatistika batzuk sortzea delarik. Eskerrik asko aldez aurretik.

***Markatu X batez erantzun egokia:**

| GALDERA | BAI | EZ |
|--|------------|-----------|
| 1. Zure kultura euskalduna da? | | |
| 2. Haurrak eskolara eraman zenituenean, egin zizuten harrera positiboki baloratzen duzu? | | |
| 3. Zure ustez, eskolak zure kulturaren inguruko interesa dauka? | | |
| 4. Eskolan zure kulturaren inguruko jarduerak antolatzea gustatuko litzaizuke? | | |
| 5. Irakaslearekin duzun komunikazioa nahikoa dela uste duzu? | | |
| 6. Eskolak bidaltzen dituen oharrak ulertzeko zailtasunak dituzu? | | |
| 7. Eskolako gurasoen parte hartzen duten talderen bateko kide izan zara noizbait? | | |

| | | |
|--|--|--|
| 8. Normalean, eskolak antolatutako jardueretan parte hartzen duzu? | | |
|--|--|--|

Queridas familias, soy una alumna de la Universidad de Vitoria-Gasteiz. Estoy realizando el Trabajo de Fin de Grado sobre la “interculturalidad” en la escuela. Para llevar a cabo este trabajo necesito que colaboréis respondiendo a unas preguntas. Las respuestas serán anónimas y el objetivo será realizar unas estadísticas con la información obtenida. Muy agradecida de antemano.

* Marca con una “X” la respuesta adecuada:

| PREGUNTA | SÍ | NO |
|---|-----------|-----------|
| 1. Tu cultura, ¿es la cultura vasca? | | |
| 2. Cuando tu hijo o hija empezó en la escuela, ¿valorarías positivamente el recibimiento que os hicieron? | | |
| 3. ¿Piensas que la escuela muestra interés por tu cultura? | | |
| 4. ¿Te gustaría que la escuela organizara actividades sobre tu cultura? | | |
| 5. ¿Opinas que la relación que tienes con el/la profesor/a es suficiente? | | |
| 6. ¿Sueles tener problemas para entender las notas que os mandan desde la escuela? | | |

| | | |
|--|--|--|
| 7. ¿Has sido miembro/a de algún grupo en el que participan los familiares de la escuela? | | |
| 8. En general, ¿sueles participar en las actividades que organiza la escuela? | | |

Dear families, I am a student of the University. I am doing the End of Degree Work about "interculturality" in school. To carry out this work I need you to collaborate by answering some questions. The answers will be anonymous and the objective will be to make statistics with the information obtained. Very grateful in advance.

***Mark with an "X" the appropriate answer:**

| QUESTION | YES | NO |
|--|-----|----|
| 1. Your culture is Basque culture? | | |
| 2. When your child started school, You value positively the reception they gave you? | | |
| 3. Do you think the school shows interest in your culture? | | |
| 4. Would you like the school to organize activities about your culture? | | |
| 5. Do you think that the relationship you have with the teacher is enough? | | |
| 6. Do you usually have problems to understand the notes sent to you from school? | | |

| | | |
|---|--|--|
| 7. Have you been a member of a group in which family members of the school participate? | | |
| 8. In general, do you usually participate in the activities organized by the school? | | |

2. Eranskina. Ikasleentzako galdetegia

Irakurri galderak eta erantzuna (BAI/EZ) “X” batez markatu.

| GALDERA | BAI | EZ |
|--|------------|-----------|
| 1. Eskolan nire kulturaren inguruko interesa dagoela uste dut. | | |
| 2. Eskolan nire herrialdearen inguruko jarduerak egin izan ditugu. | | |
| 3. Nire kultura, beste ikasle batzuen kultura baino garrantzitsuagoa dela uste dut. | | |
| 4. Ikasgelan, nire kulturaren inguruko jarduerak egitea gustatuko litzaidake. | | |
| 5. Ikasgelako liburuetan agertzen diren pertsonen irudiekin identifikatuta sentitzen naiz. | | |
| 6. Ikasgelan nire herrialdeko hizkuntza, ohitura edota errealitateari buruz hitz egin izan dugu. | | |
| 7. Ikaskideek nire jatorriarengatik gutxietsi naute. | | |
| 8. Ikaskideek nire jatorriarengatik baztertu naute. | | |
| 9. Irakasle batek nire jatorriarengatik gutxietsi nau. | | |
| 10. Irakasle batek nire jatorriarengatik baztertu nau. | | |

3. Eranskina. Irakasleentzako galdetegia

Irakasle agurgarria,

Gasteizeko Unibertsitateko ikaslea naiz. Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz eskola honetako **kulturartekotasuna** aztertzeko. Lana aurrera eramateko zure laguntza behar dut eta eskertuko nizuke ondorengo galderak erantzungo bazenitu. Guztiz anonimoa izango da, helburua erantzun hauekin estatistika batzuk sortzea delarik. Eskerrik asko aldeztatik.

***Markatu X batez erantzun egokia:**

| GALDERA | BAI | EZ |
|---|-----|----|
| 1. Euskal kulturakoak ez diren beste kulturaren bateko ikasleren bati klasea ematen diot. | | |
| 2. Ikasgelako ikasle guztien kulturen inguruan informatu naiz. | | |
| 3. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili dut. | | |
| 4. Eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut. | | |
| 5. Ikasgelako materiala errealitatera egokitze moldatau edo prestatzen dut. | | |
| 6. Erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen da beste batzuen gainetik. | | |
| 7. Erabiltzen ditudan materialetako ilustrazioek estereotipoak gainditzen dituzte. | | |
| 8. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut. | | |
| 9. Ikasgelan printzipio, kultura, erlijio edota gertaera historiko ezberdinak alderatu ditugu. | | |
| 10. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudun formazioa nahikoa dela. | | |